



UMANDI GURASO ELKARTEA

www.umandi.net/ampaumandi

GURASO ELKARTE BILERA

Umandi ikastolan Irailaren 18, osteguna eta aurrez horretarako deialdia egin ondoren guraso elkarteko partaideak bildu dira, ondorengo hauek bertaratuaz:

Nuria Alonso Lafuente (lehendakaria), Ana Arroyo (lehendakari ordea), Yolanda Castillo (diruzaina), Itsaso Imaz (idazkaria), Beatriz Sáez, Juan Carlos Saenz, Peio Cernadas, Encarna Bonilla, Bego Gaviña, Sonia Fernandez de Arroyabe, Nieves Crespo, Vega Terrazas, Ana de la Flor, Eneko Etxegarai.

Hasiera ordua: 17:00.

Bukaera ordua: 18:30.

EGUNEKO AZTERGAIK

- AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARTZEA.

Bileraren deialdiarekin batera aurreko akta bidali zen irakurritzat eta onartutzat ematen da.

- KARGU-BERRIZTATZEA:

Nuria Alonso lehendakaria, Ana Arroyo lehendakariordea eta Itsaso Imaz idazkariak jarraitzen dute beraien karguetan. Yolanda Castillok diruzaintza uzten du eta Ana Arroyok bereganatuko du.

Kanpo ekintzetarako ez dago arduradunik. Kanpo ekintza batzordean daudenen artean kudeatuko dute. Dirulaguntzak eta atal ekonomikoaz Ana Arroyo lehendakari ordea arduratuko da.

Eskola kontseiluaren berriztatzerako gutxienez 15 pertsona behar dira, 7 berri sartuko zirenak eta besteak erreserbarako.

- **KONTU EGOERA**

Diru dago eta datorren bilerarako azalduko dizkigute kontuak.

- **IKASTOLA JAIAREN ETA JOLAS TXOKOAREN BALIOSPENA:**

IKASTOLAKO JAIA:

Azukre kotoiaren makina ez doa.

Txutxeak gogorrek zeuden.

Saskibaloiko 3x3 ko antolatzaileak eskatu dute ea datorren urtean megafonia erabili dezaketen. Kexak egon dira zergatik saskibaloiko lehenego txapeldunarentzako saria bigarrenekoarentzako berdina izan zen.

Boletoena oso ondo atera zela.

Puzgarriak oso juntatu zeuden beraien artean.

Karpa bat puskatu egin zen.

Kross-ean irabazleen izenen bat gaizki esan zen, proposatzen da dortsalean fijatu ordez, iristen direnean haurrei izena galdetzea aurreko urteetan egin den bezala.

Tabernarako kañeroa jartzea proposatzen da, eta edalontzi berrerabilgarriak.

Garbitasunerako bolondres asko egon ziren.

JOLASEN TXOKOA:

69 neska-mutiko egon ziren, aurreko urtean baino gehiago, eta orokorrean balioespena positiboa da ordutegi eta egutegia luzatzearekin.

- **DENON ESKOLAREN BERRIAK:**

Denon eskolak hitzaldiak proposatu ditu L.O.M.C.E-aren nondik norakoak azaltzeko, interesaturik bagaude data bat proposatu behar da.

Datorren ikasturtean L.O.M.C.E –a dela eta liburu guztiak berriztatzen dira.

Hezkuntza sailak eskola mapa zehaztuta utzi nahi du 2014-ko Abenduren 31-rako.

- **BATZORDEEN EGOERA EGUNERATUA:**

KANPOKO EKINTZAK:

Lehenengo urtean Athlon-ek ez zizkigun kontratazioen kudeaketa gastuak kobratu. Urte honetan monitore bakoitzeko 30€ kobratuko digute. Monitore batzuk elkarbanatuak direnez, gastuak ere.

Multidancing-erako materiala erosi behar da.

Irailaren 29-an hasiko dira kanpoko ekintzak. Partiduetarako epai lanetarako gurasoak beraien artean antolatzen proposatzen da, guraso bolondresen bat badago egiteko edo bestela arbitroa ordaintzeko beraien artean dirua jar dezatela.

Bateratu egin behar da topaketetara doazen monitoreei eta partiduetara doazenei ordaintzen zaiena.

Kanpo ekintzetako bilera orokorra Irailaren 24-an izango da.

- **HILEROKO BILERETAKO ORDUTEGIA ETA EGUNA:**

Bilerak asteazkenak bostetara aldatzen dira.

- **BESTELAKOAK:**

Ikastolako familia batzuen proposamen bat aurkeztu da "Familiak mendira" deiturikoa, hilabete behin pasako da gutuna eta bolondresak eskatzen dituzte antolaketaz arduratzeko.

Beste aztergairik gabe bilera bukatutzat ematen da 18:30etan.

Nuria Alonso

Itsaso Imaz

-Lehendakaria-

-Idazkaria-